

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

45. astea (2023/11/06-2023/11/12)

COVID-19aren intzidentzia aurreko asteko antzeko balioetan mantendu da. Bai gripearen aktibitateak, nola bronkiolitisaren intzidentziak eta ABSren detekzioek, gora egin dute aste honetan.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 380,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (270,1/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 72 lagin jagoleen % 63,9 baieztatu da, 4 SARS-CoV-2, 4 gripe-birus (positibotasuna % 5,6) eta 7 ABS (positibotasuna % 9,7) atzeman direlarik. 24 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 33,3).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,7/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 110 SARS-CoV-2, 62 gripe-birus eta 84 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 380,7 kasukoa izan da (270,1/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 302,1/100.000 izan da Araban, 394,2/100.000 Bizkaian eta 395,3/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2839,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 607,1 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 45. astea	Tasa 44. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	330,2	242,7	1,36 (1,23-1,50)
Arabar Errioxako ESI	502,7	400,5	1,26 (0,86-1,84)
Barakaldo-Sestaoko ESI	333,4	248,0	1,34 (1,16-1,56)
Barrualde-Galdakaoko ESI	389,6	283,7	1,37 (1,26-1,50)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	438,5	273,7	1,60 (1,48-1,74)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	405,2	267,6	1,51 (1,34-1,71)
Uribeko ESI	329,3	237,1	1,39 (1,24-1,55)
Bidasoako ESI	299,8	189,5	1,58 (1,29-1,94)
Debararrenako ESI	403,2	266,5	1,51 (1,26-1,81)
Debagoienako ESI	336,2	248,6	1,35 (1,10-1,66)
Donostialdeako ESI	364,4	267,8	1,36 (1,25-1,48)
Goierri-Urola Garaiako ESI	460,9	376,2	1,23 (1,07-1,41)
Tolosaldeako ESI	524,3	421,6	1,24 (1,06-1,46)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 5,3 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (3,8/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) goranzko joera mantendu eta 714,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (495,7/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 72 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 63,9 baieztatu dira. 4 SARS-CoV-2, 4 gripe-birus eta 7 ABS atzeman dira. 24 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan SARS-CoV-2aren eta gripe-birusaren positibotasunak % 5,6an kokatu dira (% 12,0 eta % 0,0 aurreko astean, hurrenez hurren) eta ABSrena % 9,7ra igo da (% 4,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 33,3koa izan da (% 24,0 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE


	45. astea		44. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	4	5,6	0	0,0	6	2,6
SARS-CoV-2	4	5,6	3	12,0	19	8,2
ABS	7	9,7	1	4,0	16	6,9
Metaneumobirus	2	2,8	0	0,0	2	0,9
Parainfluenza	3	4,2	2	8,0	11	4,7
Adenobirus	1	1,4	1	4,0	3	1,3
Errinobirus	24	33,3	6	24,0	81	34,8
Urtaroko CoV	5	6,9	1	4,0	6	2,6

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 12,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,7/100.000 aurreko astean), 10,6/100.000 emakumeetan eta 14,3/100.000 gizonetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 5 urtetik beherakoen adin-taldean eman da, 63,0 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 28,4 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 64 urtetik gorakoetan izan ezik.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Aste honetan, SARS-CoV-2ren positibotasunak behera egin du (% 5,5) eta gripe-birusarenak gora (% 9,4). ABSren positibotasunak ere gora egin eta % 20aren gainetik kokatu da. Errinobirusaren positibotasuna % 41,0koa izan da (% 27,1 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	45. astea		44. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	199	5,5	159	8,8	1098	13,9
Influenza	181	9,4	148	6,1	905	5,6
ABS	141	20,6	118	19,5	678	11,1

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE



Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Mikrobiologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 110 SARS-CoV-2, 62 gripe-birus eta 84 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 62 gripe-birusetatik, 36 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 5 A(H3) eta 21 A(H1)pdm09. 2023/40 astetik 224 detekzio erregistratu dira, 221 (% 98,7) A motakoak eta 3 (% 1,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 52 birusetatik, 7 (% 13,5) A(H3) eta 45 (% 86,5) A(H1)pdm09 izan dira.


SARS-CoV-2ren jarduerak txikia izaten jarraitzen du, eta urrian 253 andui sekuentziatu dira Euskadin. EG.5 interes-aldaera da nagusi gure ingurunean (% 27,1), eta, ondoren, XBB.1.5

interes-aldaera eta haren ondorengoak (% 18). DV.7 zaintzapeko aldaera berria (CH.1.1ren ondorengoa) sekuentziatutako anduien % 5era iritsi da. Anduien dibertsifikazio globalak gora egiten jarraitzen du, aurreko aldaeren ondorengo azpilinajeak agertzen direlarik, guztiak omicron-etik datozenak.

EG.5 aldaera berriaren azken arrisku-ebaluazioak osasun publikorako arrisku txikikotzat sailkatu du, eta oraingoz ez dago datu epidemiologikorik gaur egungo intereseko edo zaintzapeko aldaeren arrisku handirik adierazten duenik.

EG.5 Europan, Amerikan eta mendebaldeko Ozeano Barean gehien gailentzen den aldaera da; XBB1.5, berriz, Afrikan gailentzen den aldaera da.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 45. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 10,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (8,4/100.000 aurreko astean); 11,7 gizonetan eta 10,0 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 19 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (30 ospitaleratu aurreko astean), 8 gizon eta 11 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 90,0 60 urtetik gorakoa zen.

¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoen eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



Urteko 45. astean, COVID-19 4 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean, aurreko astekoaren kopuru berdina. Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 4 izan da, aurreko astean baino bat gehiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko azaroaren 15ean

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**